

**2020ko urriaren 24an ospatuko den ERMUKO MUGARRIZ MUGARRI ekitaldirako ,  
COVID-19 Segurtasun Plan hau sortu du ARTARRAI MENDI TALDEAK.**

- Ekitaldia Artarrai mendi taldeak antolatuko du
- Covid -19aren inguruko osasun egoera kontuan hartuta, aurtengo Mugarriz Mugarri mendi irteeraren funtsezko alderdia batzuk aldatuko ditugu; beti ere gaixotasunaren transmisioa minimizatzeko eta kontrolatzeko.

**Jarduera honela garatuko da:**

**PUBLIZITATEA**

- Aurten, ekitaldiari buruzko eskuorriak ez dira Lobianon, polikiroldegian eta tabernetako barretan utziko.
- Horren ordez, publizitatea komunikabideetan, facebookean, ikastetxeetan eta abar egingo da.

**IZENA EMATEA**

- Jarduera parte hartzeko izen-ematea batez ere telematikoki edo telefonoz egingo da, klubaren egoitzan jendea pilatu ez dadin.
- Izena ematen duten guztiei Covid-19 protokolo honen kopia bat emango zaie, eta inskripzioak bertako arauak betetzera behartuko ditu.

**JARDUERAREN GARAPENA**

- Parte-hartzaile guztiak Ermuko plaza elkartuko dira, maskara erabiliz eta gutxienez 1,5 metroko distantziari eutsiz.
- Parte-hartzaile guztiei protokoloaren berri emango zaie.
- Partaideak talde txikietan (10 kidekoak) antolatuko dira, hobeto kontrolatzeko eta ibiltzean segurtasun-distantzia handiagoa izateko; gainera zenbait minutuko tartearekin abiatuko dira. Talde bakoitzak Artarraiko kide bat izango du, protokoloa betetzen dela ziurtatzeko.
- Ermuko kaleetatik igarotzen diren bitartean, parte-hartzaile guztiek maskara eramango dute, ostera, mendian maskara hori alde batera utzi ahal izango dute.
- Ibilaldian zehar, paraleloan ibiltzea gomendatzen da, 1,5 metroko gutxienerako distantziarekin. Segurtasun-distantzia 4-5 metrotara luzatzen bada askoz hobeto. Bide estuen kasuan, paraleloan ibiliz distantzia mantentzea ezinezkoa denean, ilaran jarraituko da, aurrekoarekiko gutxienerako 1,5 metroak errespetatuz.
- Atsedeen hartzeko geldialdiak leku zabaletan egingo dira.
- Errepidea zeharkatu beharko den tarte laburretan maskara erabiliko da, berriro ere mendi inguruan sartu arte.

- Ohikoa den bezala hamaiketakoa Errekalden egingo da, oraingoan distantziak mantenduz. Baina parte-hartzaile bakoitzari janariarekin poltsa itxi bana emango zaio, janariaren eta edariaren banaketa kolektiboa saihesteko.
- Hornidura mailakatua izango da; izan ere, taldeak minutu batzuetako aldearekin irteteen, Errekaldera ere denboran aldeak izango direlako.
- Errekaldeko mahai eta bankuetan ez esertzea gomendatzen da
- Taldeko argazkia maskararekin egingo da, edo, bestela, kide gutxiagoko hainbat talderen argazkiarekin ordezkatu da.
- Berriz ere Urko aldera talde txikietan abiatuko dira, , minutu batzuetako tartetean.
- Urko puntako ohiko elkargunea kendu egingo da, eta baita Ermuko plazan ibilbidea bukatzeko egiten dena ere.
- Azkenik, une horretan sintomak badituzte edo PCR batean positibo eman badute ekintza honetan parte ez hartzeko eskatuko zaie mendizale interesatu guztiei.
- Protokolo honetan ezarritakoa betetzen ez duten parte-hartzaileak jarduera uztera gonbidatuko dira, eta beren erantzukizunpean geratuko dira. Artarra ez da gehiago beraietaz kezkatuko

Informazio guztia Artarri mendi taldearen blogean eta gure sare sozialetan egongo da.

**EKITALDIA GOIZEKO 8:00ETAN HASIKO DA ETA 14:00AK INGURUAN BUKATUKO DA**